

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**359/2019 Foru Agindua, uztailaren 29koa, onesten duena Pilar López Luque atxikitzea Aurrekontuetarako eta Erakundeen arteko Konpromisoetarako Zerbitzuaren buruaren lanpostuari, zeinak 1035.001 kodea baitu, eta Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzakoa baita.**

Ekainaren 12ko 302/2019 Foru Aginduaren bidez deialdia egin zen izendapen askearen sistemaren bidez betetzeko Aurrekontuetarako eta Erakundeen arteko Konpromisoetarako Zerbitzuaren buruaren lanpostua, 1035.001 kodeduna, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzakoa.

Eskabideak egiteko epea amaitu eta haiek aztertu ondoren, deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, Finantza eta Aurrekontu zuzendariak, espedientean jasota dagoen txosten arrazoitu batean Pilar López Luque andrea proposatu zuen Aurrekontuetarako eta Erakundeen arteko Konpromisoetarako Zerbitzuaren buru izateko.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Pilar López Luque atxikitzea Aurrekontuetarako eta Erakundeen arteko Konpromisoetarako Zerbitzuaren buruaren lanpostuari, zeinak 1035.001 kodea baitu, eta Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzakoa baita.

Bigarrena. Foru agindu honek 2019ko irailaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 29a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**